

TIPOS DE AUTORIZACIONES BAIMEN-MOTAK



RESIDENTES
BIZILAGUNAK



RESIDENTES MAYORES DE 70 AÑOS
Y PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA
70 URTETIK GORAKO BIZILAGUNAK
ETA MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONAK



ESTABLECIMIENTOS
COMERCIALES
MERKATARITZA
-ESTABLEZIMENDUAK



CARGA Y DESCARGA
ZAMALANAK

TAMBIÉN PUEDEN ACCEDER HAUEK ERE SARTZEN AHAL DIRA:

Propietario/as plazas de garaje - Titulares de aparcamiento privado - Titulares de aparcamiento público - Establecimientos hosteleros - Obras, mudanzas y reparaciones a domicilio - Vehículos de emergencias - Auto taxis - Transporte público regular de viajeros - Vehículos oficiales de las Administraciones Públicas - Empresas concesionarias de servicios Ayto. de Pamplona - Servicios técnicos de urgencia - Reparto comida a domicilio - Celebración de eventos - Farmacias de guardia

Garaje-tokien jabeak - Aparkaleku pribatuen titullarrak - Aparkaleku publikoen titullarrak - Ostalari-ritza-establezimenduak - Obra, etxe-aldaketa eta etxez etxeko konponketa-lanetako langileak - Larrialdietarako ibilgailuak - Autotaxiak - Bidaiariaren ohiko garraio publikoa - Administrazio publikoaren ibilgailu ofizialak - Iruñeko Udaleko zerbitzuen emakida duten enpresak - Premiazko zerbitzu teknikoak - Etxez etxeko janari-banaketako langileak - Ekitaldi-ospakizunak - Guardiako farmaziak

EL VECINO / AUZOTARRENTZAT:



Puede estacionar 15 minutos / 15 minutuz aparkatu dezakete

(salvo que tenga tarjeta de sector 1 y lo haga en una verde)
(salbu eta 1. sektoreko bizilagun-txartela izan eta alde berdean aparkatzen badute)

**No puede acceder por cualquier lugar,
sólo por las calles de entrada más próximas a destino**

Ezin dira edozein tokitik sartu,

helmuga zein den eta hortik gertuen dauden sarbideetatik sartu behar baitute



CUATRO VÍAS PARA RESOLVER DUDAS

LAU BIDE ZALANTZAK ARGITZEKO

1 ATENCIÓN
TELFÓNICA **010**
TELEFONO
BIDEZKO ARRETA

2 PÁGINA WEB
WEBGUNA
WWW.PLANDEAMABILIZACION.COM

3 CASETAS DE INFORMACIÓN
EN LA PLAZA DEL CASTILLO
ARGIBIDE-GUNEAK, GAZTELUKO PLAZAN
Todos los fines de semana del mes de septiembre
Iraileko asteburu guztietan
Viernes / Ostiraletan
18:00 - 21:00
Sábados y domingos / Larunbat eta igandeetan
11:00 - 14:00 + 18:00 - 21:00

4 VISITAS GUIADAS
POR LA CIUDAD
BISITA GIDATUAK HIRIAN BARN



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

NUEVO SISTEMA DE CONTROL DE ACCESOS DEL CASCO ANTIGUO ALDE ZAHARRERA SARTZEKO KONTROL-SISTEMA BERRIA

A PARTIR DEL 10 DE OCTUBRE / URRIAREN 10ETIK AURRERA



Plan para la amabilización del centro de la ciudad
Hirigunea atsegin egiteko plana

La implantación del nuevo sistema de control de accesos al casco antiguo entrará en vigor a partir del 10 de octubre. Este sistema regulará las entradas y salidas a la zona histórica de Pamplona mediante cámaras de lectura de matrícula. Se busca primar un modelo de movilidad sostenible que revalorice la calidad del espacio urbano en torno a las personas, salvaguardando a la vez las necesidades de quienes viven y trabajan en este emblemático barrio. La actuación se basa en una idea: el Casco Viejo debe ser el corazón de la Iruña del futuro, una ciudad dinámica, segura, sostenible, viva, verde, racional, funcional y respetuosa, en la que sus protagonistas sean las personas.

Para apuntarte desde el 4 de septiembre
Eman izena, irailaren 4tik aurrera

www.plandeamabilizacion.com



Alde Zaharrera sartzeko kontrol-sistema berriak urriaren 10etik aitzina hartuko du indarra. Sistemak Alde Zaharrerako sarrerak eta irteerak kontrolatuko ditu matrikulak irakurtzeko kameren bidez, monumentu-gunera sartzeko bideak kontrolatzeko. Mugikortasun jasangarriko ereduari eman nahi zaio lehenetasuna, pertsonak aintzat hartuta hirigunearen kalitateari balio handiago emanaz, auzo enblematiko honetan bizi eta lan egiten dutenen premiak beteta. Jarduketek honako ideia hau dute oinarri: Alde Zaharrak bihotza izan behar du etorkizuneko Iruñean, hiri dinamiko, seguru, jasangarri, bizi, berde, arrazional, funtzional eta adeitsu baten bihotza, non pertsonak izanen baitira protagonista.

MODO DE CIRCULAR EN CASCO ANTIGUO ALDE ZAHARREAN ZIRKULATZEKO BALDINTZAK:

Máximo 20 Km/h / Gehienez 20 km/h.

Prioridad de paso es siempre del peatón / Oinezkoek beti dute igarotzeko lehentasuna.

Donde no hay reservado para estacionamiento, los vehículos habilitados estacionarán en el lado derecho de la calle los meses pares, y en el izquierdo los meses impares. Aparkatzea erreserbatu ez dagoen tokietan, bertan aparkatzeko eskubidea duten ibilgailuek kaleko eskuin aldean egiten dute, hilabete bikoitietan, eta ezkerrekoan, hilabete bakoitietan.

Mínimo 1,5 m de la fachada / Fatxadatik gutxienez 1,5m-ko tartea gorde.

En caso de densidad peatonal, prohibido circular / Oinezko asko ibiliz gero, debeku da zirkulatzeko.

SON 13 LAS CÁMARAS COLOCADAS, ubicadas en los siguientes accesos al Casco Antiguo:

Calle Vergel, acceso a Portal de Francia. Control de entrada y salida.
Calle Santo Domingo, trasera de edificio de Educación. Control de salida.
Calle Santo Domingo, entre edificio de Educación y museo de Navarra. Control de entrada.
Calle Mayor con Taconera. Control de salida.
Calle Nueva con Taconera. Control de entrada.
Calle San Antón con Ciudadela. Control de salida.
Calle Navas de Tolosa cruce con Chinchilla. Control de salida.
Paseo Sarasate junto a Diputación. Control de entrada.
Calle Espoz y Mina con Duque de Ahumada. Control de entrada.
Calle Estafeta con Duque de Ahumada. Control de entrada.
Cuesta Labrit con calle San Agustín. Control de salida.
Cuesta Labrit con calle Merced. Control de entrada.

13 KAMERA PARATU DIRA, Alde Zaharreko honako sarbide hauetan:

Vergel kalean, Frantziako portalerako sarbidean. Sartzeko eta irteteko kontrola.
San Domingo kalean, Hezkuntzako eraikinaren atzeko aldean. Irteteko kontrola.
San Domingo kalean, Hezkuntzako eraikinaren eta Nafarroako museoaren artean. Sartzeko kontrola.
Kale Nagusia eta Taconera kalearen elkargunean. Irteteko kontrola.
Kale Berria eta Taconera kalearen elkargunean. Sartzeko kontrola.
San Antón eta Ciudadela kaleen elkargunean. Irteteko kontrola.
Navas de Tolosa eta Chinchilla kaleen elkargunean. Irteteko kontrola.
Sarasate pasealekuan, Diputazioaren ondoan. Sartzeko kontrola.
Espoz y Mina eta Ahumada Dukearen kaleen elkargunean. Sartzeko kontrola.
Estafeta eta Ahumada Dukearen kaleen elkargunean. Sartzeko kontrola.
Labrit eta San Agustín kaleen elkargunean. Irteteko kontrola.
Labrit eta Merced kaleen elkargunean. Sartzeko kontrola.

20 CASOS PRÁCTICOS

1- Tengo tarjeta de residente, ¿tengo que darme de alta?

No hace falta, esas matrículas ya se han incluido en el listado de forma automática.

2- ¿Por donde puedo entrar?

Hay 9 entradas (Santo Domingo, Portal de Francia, Labrit, Estafeta, Espoz y Mina, San Ignacio, Sarasate, Ciudadela, Nueva) y 6 salidas (lateral de Educación, Portal de Francia, Labrit, Sarasate, San Antón, Mayor).

3- ¿Cuáles son los principales cambios respecto a la actualidad?

Hay tres cambios: calle Mayor es sólo salida; Calle Santo Andía y Recoletas cambian de sentido y se puede transitar desde Zapatería por Calceteros, Chapitela a plaza Castillo.

4- ¿Quién puede darse de alta en el sistema de acceso?

Todo aquel que desee acceder a la zona excepto, bicidetas y residentes del sector 1 (incluidos de modo automático).

5- Tengo que entrar por una urgencia, ¿puedo acceder?

Sí, en caso de servicios técnicos de urgencia se permite acceder fuera del horario de carga y descarga. La solicitud se puede pedir después del servicio (hasta 72 horas).

6- Me llama mi madre que se ha caído y está sola en casa, ¿tengo que perder tiempo en pedir permiso?

No, lo principal es entrar, atender a la persona necesitada y una vez solucionado el problema y ya con tranquilidad, indicar a la aplicación que hemos entrado y el motivo.

7- Tengo una tienda de ropa y necesito entrar para llevar unas cajas, ¿puedo?

Sí, puedes acceder a tu comercio de 8:00 a 21:00 y estacionar como máximo 15 minutos.

8- Tengo una plaza de aparcamiento, ¿puedo acceder?

Sí, por el itinerario más próximo a tu plaza, pero no podrás aparcar fuera de él.

20 KASU PRAKTIKO

1- Badut bizilagun-txartela, alta hartu behar al dut?

Ez da beharrezkoa, bizilagunen matrikulak automatikoki sartu baitira zerrendan.

2- Nondik sar naiteke?

9 sarbide daude (San Domingo, Frantziako portalea, Labrit kalea, Estafeta, Espoz y Mina, San Ignacio etorb., Sarasate pasealekua, Ziadela kalea eta Kale Berria) eta 6 aterbide (Hezkuntzako alboea, Frantziako portalea, Labrit kalea, Sarasate pasealekua, San Antón kalea eta Kale Nagusia).

3- Zein dira aldaketa nagusiak oraingo egoerarekin alderatuta?

Hiru aldaketa daude: Kale Nagusia bakarrik da irteteko; noranzkoa aldatu da Samuandia eta Errekoleten kaleetan; eta orain igaro daiteke Zapateriatik Calceteros eta Txapitela kaleetan baina Gazteluko plazara.

4- Nork har dezake alta sarbide-sisteman?

Gune honetara sartu nahi duen orok, bizikletak eta 1. sektoreko bizilagunak (automatikoki sartuak) izan ezik.

5- Premiazko kasu batengatik sartu behar dut, egin dezaket?

Bai, larrialdietarako zerbitzu teknikoak sar daitezke zamalanetarako alditik kanpo. Eskaera zerbitzuaren ostean aurkez daiteke, 72 orduko epearen barruan.

6.- Amaren deia jaso dut: erori da eta bakarrik dago etxean, galdu behar al dut denbora baimena eskatzeko?

Ez, garrantzitsuena da etxera joatea eta bertan laguntza ematea behar dutenei. Gero, behin arazoa konponduta eta jada lasaiago, aplikazioan jakinarazi autoaz sartu zarela eta zergatik.

7- Arropa-denda baten jabe naiz eta hara joan behar dut kubxa batzuk eramatera, joan naiteke?

Bai, joan zaitzake zure dendara, 08:00etatik 21:00etara, eta aparkatu 15 minutu gehienez ere.

8- Aparkatzeko toki baten jabe naiz, sar naiteke?

Bai, baina tokira zuzenean joateko baino ez, eta ezin izanen duzu hortik kanpoan aparkatu.



9- ¿Puedo recoger a mi hermana con movilidad reducida?

Sí, se puede dar de alta a 2 vehículos, pero no pueden acceder los dos al mismo tiempo y estacionarán en los lugares habilitados.

10- Tengo una empresa de mensajería, ¿puedo acceder a llevar los pedidos del casco antiguo?

Sí, es obligatoria una autorización previa. Puedes acceder en el horario 8:00-11:00 – 14:00 a 16:30.

11- He comprado un electrodoméstico en un comercio del casco antiguo, ¿puedo entrar para recogerlo?

Sí, el comerciante te dará acceso para cargar tu compra, de alto peso o volumen. Como máximo podrás aparcar 15 minutos.

12- Soy fontanero, y tengo una instalación en el casco antiguo, ¿puedo acceder con mi furgoneta?

Sí, debes estar dado de alta en la aplicación informática dentro del grupo "Obras, mudanzas y reparaciones" y puedes acceder en el horario de carga y descarga.

9- Joan naiteke mugikortasun murriztuko nire arrebaren edo ahizparen bila?

Bai, 2 ibilgailuentzako alta har daiteke horretarako, baina ezin dira biak aldi berean sartu, eta, betiere, aparkatu beharko dutelarik haien zati bat tokietan.

10- Mezularitza-empresa bat daukat, sar naiteke Alde Zaharrera mandatuak egitera?

Bai, baina aurretik baimena eduki behar duzu. Sartzeko ordutegia: 08:00 – 11:00 eta 14:00 – 16:30

11- Etxetresna elektriko bat erosi dut Alde Zaharreko denda batean, sar naiteke jasotzera?

Bai, dendariak emanen dizu erositakoa –pisu edo bolumen handikoa– kargatzeko sarbidea. Gehienez 15 minutuz aparkatu dezakezu.

12- Iturgina naiz eta instalazio-lan bat egin behar dut Alde Zaharrean, sar naiteke furgonetaz?

Bai, horretarako alta hartu behar duzu aplikazio informatikoan Obrak, etxe-aldaketak eta konponketak izeneko taldean, eta gunera sartu zamalanetarako aldiari.

13- Tengo alojamiento en un hotel del casco antiguo, ¿puedo acceder con mi coche?

Sí, puedes acceder con el coche como máximo 30 minutos para cargar y descargar tu equipaje, te darán acceso desde el hotel. Si el hotel tiene plaza de garaje podrás aparcar en ella.

14- Organizamos una feria, ¿puedo entrar para montar el stand?

Sí, siempre que la feria o el evento cuente con autorización podrás acceder por la entrada más cercana y el tiempo que sea el imprescindible.

15- Son las 11,30 de la noche, y tengo que ir a la farmacia de guardia, ¿puedo?

Sí, en la farmacia te darán acceso, aunque sea fuera del horario comercial. Ellos tienen 72 horas para comunicarlo al sistema.

16- ¿Pueden los minusválidos no residentes del 1 y 2 utilizar las plazas de aparcamiento reservadas del paseo de Sarasate por ejemplo?

Las tarjetas, que han de usarse sólo para trasladar a su titular, habilitan para estacionar en todas las zonas sin abonar ticket, incluido Sarasate. No obstante deberán darse de alta en el sistema.

17- ¿Por dónde deben acceder las motos para aparcar en Sarasate?

Únicamente podrán acceder por Yanguas y Miranda, viniendo desde Plaza de la Paz. Deberán salir por García Castañón.

18.- ¿Los parkings de la cuesta de Santo Domingo y Larraina siguen siendo rotatorios?

Se mantiene igual que en la actualidad.

19- Si soy vecino del Casco y no dispongo de tarjeta de residente por tener plaza de parking, ¿necesito darme de alta en el sistema?

Sí, es necesario darse de alta para poder acceder al parking situado dentro del sector 1.

20- El sistema de accesos entra en vigor el 10 de octubre. A partir de entonces, ¿puedes ser multado?

A partir de entonces comenzará el control con mayor intensidad. La finalidad no es sancionar sino poner orden en el uso del casco viejo. Habrá una lógica flexibilidad en su implantación.

13- Ostata hartu dut Alde Zaharreko hotel batean, sar naiteke autoaz?

Bai, gehienez 30 minutuz, ekipajea kargatu eta deskargatzeko. Sarbidea hotelean emanen dizute. Hotelak garaje-tokirik edukiz gero, bertan aparkatu dezakezu.

14- Azoka bat antolatu dugu, sar naiteke stand-a muntatzera?

Bai, azoka edo ekitaldia egiteko baimenik izanez gero, sarrera hurbilenetik sar zaitzake eta behar beste denboraz egon.

15- Gaueko 11:30ak dira eta guardiako farmaziara joan behar dut, sar naiteke?

Bai, farmazian emanen dizute sarbidea, nahiz eta merkataritza-ordutegitik kanpo izan. 72 orduko epea dute sisteman horren berri emateko.

16- Aparkatzen ahal dute 1. eta 2. sektoreetako bizilagun ez diren ezinduek erreserbatutako aparkatze-tokietan, esaterako Sarasate pasealekuan?

Ezinduen txartelek –zeinak titullararen joan-etorrietarako bakarrik erabil daitezkeen– bidea ematen dute sektore guztietan, Sarasate barne, aparkatzeko, tiketa ordaindu gabe. Nolanahi ere, alta hartu beharko dute sarbide-sisteman.

17- Nondik sartu behar dute motoek Sarasaten aparkatzeko?

Bakarrik Yanguas y Miranda kaletik, Bake plazatik etorrita. Irteteko, García Castañón kalean baina joan behar dute.

18.- San Domingo kaleko eta Larrainako aparkalekuek segitzen dute txandakakoak izaten?

Oraingo egoera berean segitzen dute.

19- Alde Zaharreko auzotarra izan eta aparkatze-tokia edukitzeagatik ez badut bizilagun-txartelik, hartu behar al dut alta sisteman?

Bai, alta hartu behar duzu, 1. sektorean den zure aparkalekura joan ahal izateko.

20- Sarbide-sisteman urriaren 10ean hartuko du indarra. Hortik aurrera isunik jartzen ahal dizute?

Orduz geroztik hasiko da kontrola zorroztago egiten. Helburua ez da zehapenik jartzea baizik eta Alde Zaharreko zirkulazioa antolatzea. Logikoa den bezala, malgutasunez jokatu da sistema ezartzean.